



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko apirilaren 29a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Osasun Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (4. or.).
- Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen da 6 hilabeteko epean bete dezan Lizarrako Udalarekin 2006ko uztailearen 19an sinatu zuen hitzarmena, buruko nahaste larria duten pertsonentzat egoitza bat eraikitzeari buruzkoa. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloen egungo funtzionamenduari eta foruzaingoaren polizia-etxeetan bideozaintzako kameren instalazioa areagotzeko aukerei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira azterlan bat egin dezaten, unibertsitate mailako hezkuntza-ziklo berrietan zenbait titulazio ezartzearen egokitasunari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan Baluarte Nafarroako Biltzarren Jauregia eta Auditorioko sarrera nagusiko errotulazioa euskaraz ere jartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Autonomoaren Foru Kontseilua sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den araudia gara dezan Nafarroako hezkuntza bereziaren arloan. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko hezkuntza-materiala argitara dezan eta 2008-2009 ikasturterako irakasleen esku jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait gai kontuan har daitezten Oinarritzko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenean. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarriketak has ditzan Aragoiko Gobernuarekin eta Sustapen Ministerioarekin, hitzarmen bat egite aldera, A-68 autobidea doakoa izan dadin N-232 errepidearen Aragoiko zatiaren bikoizketa-lanak amaitu bitartean. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da hitzarmenak negoziatzea eta sinatzea ditzan Espainian legezko egoiliar nazionalak dituzten herrialdeekin, udal hauteskundeetan botoa eman eta hautatuak izateko aukera izan dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan Nafarroan dauden ikur frankistak 2008an kentzeko. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroan hizkuntzak ikasteko programa esperimentalean Berriain, Burlata, Noain eta Cintrúenigon parte hartuko duten irakasleei eskatuko zaien hizkuntza gaitasunari buruzkoa. Galdera erretiratzea (20. or.).
- Galdera, PFEZaren aitortzea egiteko inprimakietan ezarritako “beste helburu sozial batzuk” eta “Eliza Katolikoa” laukien gaineko zenbait auziri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, NA-2601 errepidea hobetzeko Nafarroako Gobernuak daukan aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, erregaia deskargatzeko maniobretan izaten diren istripuetarako dagoen jardute-protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, galtzadan gai labaingarriak izatearen ondorioz gertaturiko zirkulazio istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Camino de Santiago ikastetxe publikoko modulu aurrefabrikatua kentzeko epeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartearantzako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kutzako Kontseilu Nagusiko kide izateko proposatu beharreko pertsonak hautatzea (27. or.).
- Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean administrari lanerako prestatu eta trebatzeko hautapen probak gainditu dituzten izangaien zerrenda (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

OSASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Osasun Batzordeak Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Osasun Batzordeak, 2008ko apirilaren 23an eginiko bileran, onetsia.

**Foru Lege proposamena,
Osasunari buruzko azaroaren 23ko
10/1990 Foru Legeko 5. artikulua
aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, bere printzipio gidarien artean, honakoak ezartzen ditu: osasunaren kontzeptu integrala eta prestazioen efizientzia soziala. Hala ere, 5. artikuluan, herritarrek osasun zerbitzuak direla-eta dauzkaten eskubideen zerrenda labur bat ageri da.

Egungo egoeran, beharrezkoa da osasunari buruzko araudi orokor hori gizarteak egun eskatzen dituen prestazioen arabera egokitzea. Hala ere, herritarren eskubideen zerrenda gaurkotu beharra dago, administrazioak osasun publikoaren arloan eta, kasua bada, itunpeko osasunaren arloan, eskaini behar dituen kasuan kasuko prestazioekin koherenteak izateko.

Gainera, artikuluko horren izenburua, "Herritarren eskubideak", gizarteak gaur egun eskatzen dituen prestazioen arabera gaurkotu eta egokitu beharra dago.

Maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea –laguntza-informazioari, informazio publikoari, gaixoaren, haren senideen eta hurbilekoen intimitateari eta sendagilea hautatzeari eta tratamendua dela-eta gaixoak adostasuna eta bere borondatea adierazteari dagozkien eskubide pertsonalak arautzen ditu– ere kontuan hartu beharra dago administrazioak osasunaren arloan eskaini beharreko prestazioen katalogoa gaurkotzerakoan.

Bestalde, otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko osasun laguntza ororengatzea ezarri zuen. Osasuna ororengatzearen oinarritzko printzipio hori gaurkotu beharrezkoa da, bai ikuspuntu subjektibotik, bai ikuspuntu objektibotik ere. Hau da, osasuna ororengatzea, ongizatearen estatu batean, ezinbestez interpretatu behar da ez soilik herritar guztiei dagokien neurrian, baizik eta herritar guztiek legez exiji ditzaketan eta gizarteak eman behar dituen prestazio guztiak hartzearen ikuspuntutik ere. Osasuna salbuespenik onartzen ez duen eskubide bat da ongizatearen gizartean.

Osasun prestazioei buruzko eskubideen katalogoa gaurkotu beharra dago horrenbestez, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikuluari testu berria emanez, betiere kontuan hartuz maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legean –gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen– ezarritako guztia eta, besteak beste, legez ezarritako kasuetan haurdunaldiaren borondatezko eteteari dagokion osasun prestazioa ere bertan sartuz.

Eginiko azterlanetan eta estatistiketan eta emandako prestazioei buruzko datuetan agerian

geratzen den eskari sozialak justifikatzen du legez ezarritako kasuetan haurdunaldiaren etetea osasun publikoan egiteko beharra.

Artikulu bakarra.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikuluko hasierako paragrafoa eta 5. eta 14. idatz-zatiak aldatzen dira. Hona haien testu berria:

“Foru erkidegoko osasun sistema dela eta, Nafarroan egoitza duten herritarrak ondoko esku-bideen titularrak izan eta haietaz baliatu ahalko dira:

4. (KENDUTA)

5. Gaixoak eta bere senideek eta hurbilekoek prozesuari buruzko informazio osoa eta jarraitua edukitzeko eskubidea, horren barne dela diagnostia, pronostikoa eta tratamendurako aukerak; hori guztia maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeko 2., 3. eta 4. artikuluetan ezarritako baldintzetan.

14. Gaixotasun fisiko nahiz psikiko guztien osasun estaldura orokorra edukitzeko eskubidea,

legeek ezarritakoaren barruan. Gaixo batek, esku-bideen subjektu gisa, aitortuak ditu Nafarroako osasun publikoaren barruan eta itunpeko osasunaren barruan, besteak beste, haurdunaldiaren borondatezko etetea, betiere legez aurreikusitako baldintzetan. Foru erkidegoko osasun administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, eta haiek gauzatuko dira programazio espresa eta berariazko aurrekontu-zuzkidura egin ondoren. Prestazio horien helburua izanen da berariazko arrisku-faktoreak dituzten gizarte-taldeak babes-tea, lan osasunari arreta berezia eskainiz.”

Azken xedapen bakarra. Erregelamendu bidezko garapena.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko titularrari behar diren ebazpenak eman ditzan, abian jartzeko, profesionalen kontzientzia eragozpen pertsonala zorrotz errespetatuz, behar adinako egitura profesional bat, duintasunez emanen duena haurdunaldiaren borondatezko eteteari berez dagokion osasun zerbitzuaren prestazioa, legez ezarritako baldintzetan, Nafarroako osasun sistema publikoaren barruan.

Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2007ko urriaren 23ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lehenengo artikulua ordezte proposatzen da:

“1. Foru lege honen funtsezko xedea da Nafarroako Foru Komunitatean bermatzea etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa eta unibertsala.

2. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa eta unibertsala erabiltzea bermatuko duen politika publikoen multzoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazioek eratuko dute eta exekutatu dute” beharrean, hau jartzea:

“1. Foru lege honen xedea da, Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legean neurri berriak sartuz, etxebizitza duin eta egoki batez gozatzeko eskubidea ziurtatzen laguntzea, Espainiako Konstituzioko 47. artikuluan ezarritakoaren arabera hain zuzen.

2. Nafarroako Gobernuak, bilkuraldi honetan, Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko du Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektu bat, non eskubide hori hobeki ziurtatzeko egokiak diren neurriak jasoko baitira eta, besteak beste, etxebizitza erosteko aurrezki-kontuei legeak

ematen dien trataera berrikusiko eta hobetuko baita. Behin onetsita, legeak izen hau hartuko du: Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko Legea

Zioak: Asmoa da arauketan sakontzea, eskubide horren bermea areagotzeko.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da erabat kentzea 2. artikulua: "Eskubidearen titularrak."

Zioak: Asmoa da arauketan sakontzea, eskubide horren bermea areagotzeko.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da erabat kentzea 3. artikulua: "Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboaz eta unibertsalaz baliatzea".

Zioak: Asmoa da arauketan sakontzea, eskubide horren bermea areagotzeko.

4. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen dugun testua:

"Hirugarren artikulua. Lehentasunezko helburua da etxebizitza eskatzen duen pertsona orok, baldin eta legean ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu, eskura dezala etxebizitza bost urteko epean. Helburu hori lortze aldera, administrazioek beren ahaleginak eta lehentasunak etxebizitza babestuen sustapenean jarriko dituzte, eta ez etxebizitza libreen sustapena; ez helburu gisa, ez aparteko dirusarrerak lortzeko bide gisa."

Zioak: Milaka pertsona egoera larrian eta dramatikoan daudenez, ezin baitute etxebizitza bat eskuratu, eta merkatu librearen egoera osoa bes-telakoa denez, etxebizitzaz gainezka baitago,

administrazioek beren ahaleginak etxebizitza babestuan jarri behar dituzte.

5. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, hirugarren bis artikulua, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"Hirugarren bis artikulua. Lege honek helburu du etxebizitza izateko eskubide unibertsala ahalbidetzeraz bideratutako jarduketa ororentzat interes soziala, orokorra eta lehentasunezkoa adieraztea, eta hirigintzaren arloan dauden legediak, zertan eragiten dioten edo kontra egiten dioten helburu horri, aldatu egiten dira. Nafarroako Gobernuari dagokio udal planeamenduetan, hala negoziazio bidez nola, udala aurka egonez gero, udalez gaindiko plan sektorial baten bidez, lurzorua lortuko dela ziurtatzea, bai eta etxebizitzak benetan sustatzea eta eraikitzea ere, eta horretarako behar diren neurriak hartzea. Jarduketa horiek oztopatuz legearen helburua arriskuan jartzen duten saioak ekiditea ere Nafarroako Gobernuaren eginkizuna izanen da.

Zioak: Interes orokorraren eta lehentasunezkoaren adierazpenak justifikatzen ditu, hain zuzen, benetan etxebizitza izateko eskubidea betetzeko taxutu behar diren neurriak.

6. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, hirugarren ter artikulua, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"Hirugarren ter artikulua. Tipologiak eskariari hobeki egokitzeko, babes ofizialeko etxebizitzak etorkizunean araubide orokorrekoak eta prezio tasatukoak izanen dira soilik. Araubide bereziko eta prezio hitzartuko etxebizitzaren tipologia desagertzea proposatzen da. Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legetik ezabatuta gelditzen da tipologia horren aipamen edo arautze oro.

Orain arte araubide berezia zenaren barruan etxebizitzak eskatzen dituzten pertsonen banabanako arreta emanen zaie; kontuan hartuko dira eta baloratu egiten dira lehenago araubide berezian sartzen ziren egoerak. Pertsona horiek indarre-

an jarraitzen duen gainerako edozein tipologiatako etxebizitzak eskuratuko dituzte, duten egoeraren ondoriozko baldintza mesedegarri bereziekin”

Zioak: Gaurko egoerak, hau da, lau etxebizitza-tipologia egoteak, desitxuratu eta nahastu egiten ditu lehentasunak. Araubide orokorreko berariazko etxebizitzek ghettoak eragin dituzte, eta bizikidetzarako benetako zailtasunak. Prezio tasatuaren tipologiak, berriz, etxebizitza libreak eskuratzeko ahalmen handiagoa zuten sektoreengana bideratu ditu ahaleginak.

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da erabat kentzea 4. artikulua: “Alokairuan emateko etxebizitzaren ondare publikoa eta etxebizitza hutsen gaineko ekintzak”

Zioak: Asmoa da arauketan sakontzea, eskubide horren bermea areagotzeko.

8. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Legeko 4. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Alokairuko etxebizitzaren banku publikoan esku-ragarri dauden alokairuko etxebizitzak eskuratzeko, jabetzako etxebizitzak eskuratzeko bete behar diren baldintza berak bete beharko dira. Era berean, puntuazio-baremo bera aplikatuko da. Alokairuko etxebizitzaren truke ordaindu beharreko prezioa zehazterakoan prezio tasatuan eta diruz lagunduan eginen da, zeina eskatzailearen diru-sarrerara garbien % 25aren baliokidea izanen baita, betiere PEFZaren aitortpenaren arabera.

Zioak: Alokairuaren kostuek eskatzaileen gaitasun ekonomikoaren arabera izan behar dute. Alokairuetarako dirulaguntzek bat etorri behar dute eskaera egiten dutenen zailtasunekin.

9. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, laugarren bis artikulua, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Laugarren bis artikulua. Etxebizitzari buruzko egungo legea aldatu eta, planeamendu berrietan, babes ofizialeko etxebizitzaren nahitaezko ehunekoak beste batzuk izanen dira. Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, babes ofizialeko etxebizitzaren ehunekoak, planeamendu berrietan, ezin izanen du planeamendu horien egoitza-bolumenaren % 70 baino txikiagoa izan. Ehuneko horretatik % 50 jabetzan izanen da, eta % 20 alokairuan. Era berean, bai jabetzakoetan eta bai alokairukoetan, % 75 araubide orokorrekoa izanen da, eta % 25 prezio tasatukoa”

Zioak: Etxebizitza berriak planifikatzeko eta eraikitze ahaleginak bideratu behar dira, nagusiki, etxebizitza eskuratzeko beharra eta eskubidea betetzera. Etxebizitzari buruzko 8/2004 Legeko ehunekoak ikusi da ez direla nahikoa eta, gainera, merkatu librea etxebizitzaz gainezka jarri dute.

10. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da erabat kentzea 5. artikulua: “Lurzoruaren eta hirigintza-plangintzaren arloko lankidetzaren hitzarmena Iruñerriko udalekin”

Zioak: Asmoa da arauketan sakontzea, eskubide horren bermea areagotzeko.

11. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, seigarren artikulua, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Seigarren artikulua. Hurrengo bost urteetan babes ofizialeko 15.000 etxebizitza berri planifikatzeko eta eraikitze konpromisoa hartzen da. Horietatik, 12.000 jabetzan izanen dira eta 3.000, aldiz, alokairuan”

Zioak: Nafarroan etxebizitzari babes emateko Legean hartutako konpromisoa amaitu denez, helburu berriak ezarri beharra dago, babestutako etxebizitzaren eskari-aurreikuspenari erantzuteko.

12. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, zazpigarren artikulua, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Zazpigarren artikulua. Babes ofizialeko etxebizitzaren planifikazioan, sustapenean eta eraikuntzan, administrazioek erabilera-beharren arabera, tamaina-tipologiak sartuko dituzte. Horregatik, babes ofizialeko etxebizitzetan espresuki sartu da beste etxebizitza mota bat. Aldaketa horiek zerikusia izanen dute bai metro koadroei dagokienez bai biziguneei dagokienez, hau da, oinarritzko zerbitzuez gain bat, bi eta hiru gela dituzten etxebizitzak eginen dira.

Zioak: Etxebizitzaren tamaina egokitu beharra dago gizartearen eta eskariaren beharretara. Tamaina-tipologia berriak sartzeak erantzun hobea emateko bidea ematen du eta etxebizitza horiek eskuratzeko erraztasunak ere ematen ditu.

13. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, zortzigarren artikulua, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Zortzigarren artikulua. Etxebizitza izateko eskubidea benetan gauzarazteko, eta eskubide hori ez oinarritzeko soilik etxebizitza eraiki berrietan, eta erabilitako lurraldea ere gutxiago izan dadin, erabili gabeko etxebizitzak alokairuko merkatura ateratzeko sustapen-politikak bultzatuko dira, hala jabeen begira nola alokairuko etxebizitzak nahi dituztenei begira. Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du erabilitako 3.000 etxebizitza ateratzeko alokairuko merkatu publikora, bost urteko epean. Helburu hori lortuko da erabakitaz jardunez erabili gabeko etxebizitzetara dagokienez, bai eta erabakitaz jardunez lagunduz etxeen zaharberritzeari.”

Zioak: Etxebizitza izateko eskubidea ez da ziurtatu behar soilik etxebizitza berriak eraikiz. Merkaturaren etxebizitzaz gainezka egoteak eragin duena da

etxebizitza huts ugari egotea, eta hutsik dauden etxebizitza horiek denon onuraren zerbitzura jarri behar dira.

14. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, bederatzigarren artikulua, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Bederatzigarrena. Aldatu egiten dira babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko gutxieneko eta gehieneko dirusarreraren baldintzak. Araubide orokorreko etxebizitzetarako honela geldituko da: gutxieneko dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 1,2 eginen du, eta gehienekoak, aldiz, lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 3 kide bakarra denean, edo 4,5, kide bat baino gehiago direnean. Prezio tasatuko araubideko babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko, lanbide arteko soldataren halako 3ko gutxieneko bat ezartzen da, eta lanbide arteko soldataren halako 4ko gehienekoa kide bakarra denean, edo 5, kide bat baino gehiago direnean eskatzaileak.”

Zioak: Lehentasuna eman behar zaie gizarte-sektore behartsuenei eta baliabide ekonomiko gutxi dituztenei. Gaur egungo baldintzek zaildu egiten diete etxebizitza eskuratzeko errenta baxuak dituztenei, eta, aldiz, etxebizitza libreak eros liteketenen errentei aukera ematen die babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko.

15. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, hamargarren artikulua, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Hamargarren artikulua. Eskubideen sortzapenarekin eta etxebizitza eskuratzeko baldintzekin zerikusia duen orotarako, bai eta puntuazio baremoei dagokien guztirako, gutxieneko adina 25 urtetik 22 urtera jaisten da.”

Zioak: Etxebizitza babestuak eskuratzeko 25 urte izanda erreferentzia, zaildu egiten zaie adin hori baino txikiagoa duten gazteei beren etorkizuna planifikatzeko. Kontuan hartuta eskaera aurkeztu denetik zenbait urte pasatzen direla etxebizitza esleitu eta eman arte, arrazoizkoa dirudi, aukeraren, hasierako adina 22 urtera jaitea.

16. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da erabat kentzea lehenengo xedapen gehigarria: "Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 52. artikulua aldaketa".

Zioak: Asmoa da arauketan sakontzea, eskubide horren bermea areagotzeko.

17. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da erabat kentzea bigarren xedapen gehigarria: "Herritarren parte-hartzea".

Zioak: Asmoa da arauketan sakontzea, eskubide horren bermea areagotzeko.

18. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da erabat kentzea hirugarren xedapen gehigarria: "Erregelamendu bidezko garapena".

Zioak: Asmoa da arauketan sakontzea, eskubide horren bermea areagotzeko.

19. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"Nafarroako Gobernuak bost hilabeteko epean Nafarroako Parlamentuan baremo bakarra aldatzeko proposamena aurkeztuko du, bai eta neurri fiskaletan egin beharreko aldaketak ere, hala jabetzako etxebizitzetara dagokienez nola alokairuko etxebizitzetara dagokienez."

Zioak: Etxebizitza babestuen eskuratzea arautzen duten zenbait alderdi berrikusi beharra dago: baremoen puntuazioa, laguntza ekonomikoak eta beste erregelamendu-elementu batzuk.

20. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Azken xedapena aldatzea proposatzen da: "Foru Lege hau 2008ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean".

Horren ordez, testu hau jartzea:

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Zioak: Asmoa da lege honen eraginkortasuna benetako denborara doitzea.

21. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Zioen azalpena ordeztea:

"Nafar guztiak dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea; hala dago jasota Konstituzioaren 47. artikuluan. Hala ere, gizarte-erakundeak duten Konstituzioko hainbat manurekin gertatzen den bezala, gizarte-sektore zabalek zailtasun handiak dituzte etxebizitza lortzeko, ordaintzeko moduko prezioa duen etxebizitza gutxi baitago.

Etxebizitza premia biziko ondasuna da. Etxebizitza librearen prezioak, ordea, etengabe, asko eta modu jarraian egin du gora, eta horrek erakusten du ondasun hori, funtsean, inbertsio eta espekulazio-bide gisa erabiltzen dela, hau da, zenbait sektore eta interesek inbertitzeko eta espekulatzeko erabiltzen dutela.

Horren ondorioz, herritar askok eta askok ezinezkoa du merkatu horretan sartzea eta, beraz, ezin du gauzatu etxebizitza duin eta egokia izateko konstituzio-eskubidea.

Hori horrela, etxebizitzaren politika publikoa erabat zentzuzkoa bihurtzen da: etxebizitza planak, babes ofizialeko etxeen sustapenak, dirulaguntzak eta sorospenak, lurzoru-ondare publikoak, etxebizitzaren merkatuan eraginkortasunez esku

hartzeko helburuaz botere publikoak tresnaz hornitzeko arauak.

Bada, politika publiko horiek, urteak joan eta urteak etorri, erabat aski ezak izan dira, eta gaur ere hala dira; aurrekontuetan horretarako jarri diren baliabideak oso urriak izan dira, eta gaur ere hala dira, eta esku-hartze publikoko tresnak (desjabetzea, udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektorialak, lehenetasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea), politika eraginkorra eta orokorra gauzatzeko, oso gutxi izan dira lurzorua-rena bezalako funtsezko merkatuetan.

Botere publikoak ez dira behar dena egiten ari, beraz, espekulaziozko merkatu librean etxebizitza erosterik ez duten nafar ugariak modua izan dezaten, aldiz, politika publikoei esker, funtsezko ondasun hori lortzeko.

Horregatik, gizarte-arazo larri honi aurre egiteko, jarrera muturrekoa eta erabakigarria behar da. Etxebizitza beharrezko eta funtsezko ondasuna da edozein herritarrentzat.

Ondorioz, foru lege honetako lehenengo artikuluan, etxebizitza eskuratzeko eskubidea eskubide subjektiboa eta unibertsala dela aitortu da, eta, beraz, herritarrek administrazioari eskubide horren betetzea juridikoki exijitzeko modukoa.

Botere publikoek, horrenbestez, gizarte-eskubide hori benetan gauzatzera zuzenduriko politikei behar duten lehenetasuna eman beharko diete eta beharrezko baliabideez hornitu beharko dituzte politika horiek.

Horrela, garrantzitsua da alokairuari, etxebizitzaren arloko politika publikoen barrenean, bulkada askoz handiagoa ematea. Aurrekoa oinarri, 4.1 artikuluan ezarri da zortzi urtean 12.000 etxebizitza eraikiko direla alokairuan emateko, eta, lehenengo xedapen gehigarrian jasotzen denez, babes araubideren bati loturiko etxebizitza-ahalmen berriaren gutxienez % 35 alokairuan emateko etxebizitzak izanen dira.

Era berean, hutsik dauden etxebizitzen multzo handia, etxebizitza guztien %15 gutxi gorabehera, lehenbailehen atera beharra dago alokairuko etxebizitzen merkatura. Legeko 4. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan arautzen dena da etxebizitza hutsen errolda eginen dela eta foru lege bat onetsiko dela, zeinak etxebizitza hutsak benetan alokairura ateratzeko jarduera publikoen multzoa arautuko baitu, jarduera fiskalak eta desjabetzekoak barne direla.

Bereziki muntaduna da, era berean, bosgarren artikulua, zeinaren bitartez foru gobernuari agintzen baitzaio tramita dezan udalez gaindiko plan

sektorial bat, interes orokorreko adierazpena eta guzti, Nafarroako Gobernuak Iruñerriko udalekin sinatu behar duen lurzorua eta hirigintza-plan-gintzaren arloko lankidetzaren hitzarmenaren osagarri. Tresna horien helburua, alegia, hitzarmenarena eta udalez gaindiko planarena, 25.000 etxebizitza babestu berri planifikatu eta eraikitzea da, Iruñerrian datozen zazpi urteetarako jadanik aurreikusita-ko etxebizitza-planeamenduaz gain.

Bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, azkenik, herritarrei bideak gehiago ireki nahi zaizkie udal planeamenduak zehazteko prozesuetan”

Horren ordeaz, testu hau jartzea:

“Espainiako Konstituzioko 47. artikulua aitortzen du espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dutela, eta administrazio publikoei agintzen die beren eskumenak eta ahalmenak erabil ditzaten eskubide hori eragingarria izan dadin.

Horrela, Nafarroako Foru Komunitatea aurrera-tuenetakoa da etxebizitza babestuak eraikitzeari dagokionez, eta aitzindaria izan da etxebizitzaren alorreko legegintzan. Bai Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea bai eta Lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, zeinak proposamen berritzaileak ekarri baitzituzten eta erreferentzia izan baitira beste autonomia erkidego batzuentzat, tresna baliagarriak eta eraginkorrak izan dira.

Hala ere, gaur egun, etxebizitza Nafarroako gizartearen kezka nagusietako bat bihurtu da, errenta mugatueneke familia-unitateek zailtasun ekonomikoak baitituzte etxebizitza libreko merkatuak eskuratzeko.

Horrela, aurrera egiten eta lanean jarraitu behar da baldintzak, neurriak eta prozedurak ezartzeko eta, horien bidez, modua egon dadin herritar guztiek etxebizitza batez gozatzeko duten eskubidea edukiz erabat betetzeko, bai eta modua ere arlo honetan eskubide subjektiboa aitortzeko oinarriak ezartzeko”

Zioak: Legeak azalpenerako duen zati hau doitzea, legearekin lortu nahi denarekin bat etor dadin.

22. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Legearen izenburua aldatzea proposatzen da: "Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzko Foru Legea" beharrean, honako hau izan dezala: "Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko Legea".

Zioak: Asmoa da adieraztea, modu berezian, Nafarroako Foru Komunitatean aplikatu nahi den lege-araudia. Hau da, eskubide bat da, eta, beraz, Nafarroan dagoen eskubide bat da.

Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2007ko urriaren 29ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriari gehiketa egiteko zuzenketa.

"Lehentasunezko helburua da etxebizitza eskatzen duen pertsona orok, baldin eta legean ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu, eskura dezala etxebizitza bost urteko epean. Helburu hori lortze aldera, administrazioek beren ahalegi-

nak eta lehentasunak etxebizitza babestuen sustapenean jarriko dituzte, eta ez etxebizitza librean sustapena; ez helburu gisa, ez aparteko dirusarreak lortzeko bide gisa".

Zioak: Milaka pertsona egoera larrian eta dramatikoan daudenez, ezin baitute etxebizitza bat eskuratu, eta merkatu librearen egoera osoa beselakoa denez, etxebizitzaz gainezka baitago, administrazioek beren ahaleginak etxebizitza babestuan jarri behar dituzte.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

4. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarriari gehiketa egiteko zuzenketa.

"Ezarritako helburuak lortze aldera, irizpide hauek aplikatuko dira:

1.- Lege honek helburu du etxebizitza izateko eskubide unibertsala ahalbidetzera bideratutako jarduketa ororentzat interes soziala, orokorra eta lehentasunezkoa adieraztea, eta hirigintzaren arloan dauden legediak, zertan eragiten dioten edo kontra egiten dioten helburu horri, aldatu egi-

ten dira. Nafarroako Gobernuari dagokio udal planeamenduetan, hala negoziazio bidez nola, udala aurka egonez gero, udalez gaindiko plan sektorial baten bidez, lurzorua lortuko dela ziurtatzea, bai eta etxebizitzak benetan sustatzea eta eraikitzea ere, eta horretarako behar diren neurriak hartzea. Jarduketa horiek oztopatuz legearen helburua arriskuan jartzen duten saioak ekiditea ere Nafarroako Gobernuaren eginkizuna izanen da.

2.- Etxebizitzari buruzko egungo legea aldatu eta, planeamendu berrietan, babes ofizialeko etxebizitzaren nahitaezko ehunekoak beste batzuk izanen dira. Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, babes ofizialeko etxebizitzaren ehunekoak, planeamendu berrietan, ezin izanen du planeamendu horien egoitza-bolumenaren % 70 baino txikiagoa izan. Ehuneko horretatik % 50 jabetzan izanen da, eta % 20 alokairuan. Era berean, bai jabetzakoetan eta bai alokairukoetan, % 75 araubide orokorrekoa izanen da, eta % 25 prezio tasatukoa.

Hurrengo bost urteetan babes ofizialeko 15.000 etxebizitza berri planifikatzeko eta eraikitzeko konpromisoa hartzen da. Horietatik, 12.000 jabetzan izanen dira eta 3.000, aldiz, alokairuan.

4.- Aldatu egiten dira babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko gutxieneko eta gehieneko dirusarreraren baldintzak. Araubide orokorreko etxebizitzetarako honela geldituko da: gutxieneko dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 1,5 eginen du, eta gehienekoak, aldiz, lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 3 kide bakarra denean edo 4,5 kide bat baino gehiago direnean. Prezio tasatuko araubideko babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko, lanbide arteko soldataren halako 3ko gutxieneko bat ezartzen da, eta lanbide arteko soldataren halako 4ko gehieneko kide bakarra denean, edo 5, kide bat baino gehiago direnean eskatzaileak".

5.- Tipologia eskariari hobeki egokitzeko, babes ofizialeko etxebizitzak etorkizunean araubide orokorrekoak eta prezio tasatukoak izanen dira soilik. Araubide bereziko eta prezio hitzartuko etxebizitzaren tipologia desagertzea proposatzen da. Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legetik ezabatuta gelditzen da tipologia horren aipamen edo arautze oro.

Orain arte araubide berezia zenaren barruan etxebizitzak eskatzen dituzten pertsonen bananako arreta emanen zaie; kontuan hartuko dira

eta baloratu egiten dira lehenago araubide berezian sartzen ziren egoerak. Pertsona horiek indarrean jarraitzen duen gainerako edozein tipologiatako etxebizitzak eskuratu dituzte, duten egoeraren ondoriozko baldintza mesedegarri bereziekin.

6.- Babes ofizialeko etxebizitzaren planifikazioan, sustapenean eta eraikuntzan, administrazioek erabilera-beharren arabera tamaina-tipologiak sartuko dituzte. Horregatik, babes ofizialeko etxebizitzetan espresuki sartu da beste etxebizitza mota bat. Aldaketa horiek zerikusia izanen dute bai metro koadroei dagokienez bai biziguneei dagokienez, hau da, oinarrizko zerbitzuez gain bat, bi eta hiru gela dituzten etxebizitzak egiten dira.

7.- Etxebizitza izateko eskubidea benetan gauzarazteko, eta eskubide hori ez oinarritzeko soilik etxebizitza eraiki berrietan, eta erabilitako lurraldea ere gutxiago izan dadin, erabili gabeko etxebizitzak alokairuko merkatura ateratzeko sustapen politikak bultzatuko dira, hala jabeei begira nola alokairuko etxebizitzak nahi dituztenei begira. Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du erabilitako 3.000 etxebizitza ateratzeko alokairuko merkatu publikora, bost urteko epean. Helburu hori lortuko da erabakitasunez jardunez erabili gabeko etxebizitzetara dagokienez, bai eta erabakitasunez lagunduz etxeen zaharberitzeari.

8.- Etxebizitza berriak planifikatzeko eta eraikitzeko ahaleginak bideratu behar dira, nagusiki, etxebizitza eskuratzeko beharra eta eskubidea betetzera. Era berean, puntuazio-baremo bera aplikatuko da. Alokairuko etxebizitzaren truke ordaindu beharreko prezioa zehazterakoan prezio tasatua eta diruz lagunduan egiten da, zeina eskatzailearen diru-sarrera garbien % 25aren balokidea izanen baita, betiere PEFZaren aitortpenaren arabera.

Eskubideen sortzapenarekin eta etxebizitza eskuratzeko baldintzekin zerikusia duen orotarako, bai eta puntuazio baremoei dagokien guztirako, gutxieneko adina 25 urtetik 22 urtera jaisten da.

10.- Nafarroako Gobernuak bost hilabeteko epean Nafarroako Parlamentuan baremo bakarra aldatzeko proposamena aurkeztuko du, bai eta neurri fiskaletan egin beharreko aldaketak ere, hala jabetzako etxebizitzetara dagokienez nola alokairuko etxebizitzetara dagokienez".

Zioak: Foru Lege proposamenaren helburuak lortzeko, tresna eta neurri osagarriak taxutu behar dira helburu horien lortzea errazteko.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena kentzeko zuzenketa.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Izenburua kentzeko zuzenketa.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen da 6 hilabeteko epean bete dezan Lizarrako Udalarekin 2006ko uztailaren 19an sinatu zuen hitzarmena, buruko nahaste larria duten pertsonentzat egoitza bat eraikitzeari buruzkoa.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2008ko apirilaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen da 6 hilabeteko epean bete dezan Lizarrako Udalarekin 2006ko uztailaren 19an sinatu zuen hitzarmena, buruko nahaste larria duten pertsonentzat egoitza bat eraikitzeari buruzkoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen da 6 hilabeteko epean bete dezan Lizarrako Udalarekin 2006ko uztailaren 19an sinatu zuen hitzarmena, buruko nahaste larria duten pertsonentzat egoitza bat eraikitzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuak Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen da 6 hilabeteko epean bete dezan Lizarrako Udalarekin 2006ko uztailaren 19an sinatu zuen hitzarmena, buruko nahaste larria duten pertsonentzat egoitza bat eraikitzeakoa.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloen egungo funtzionamenduari eta foruzaingoaren polizia-etxeetan bidezaintzako kameren instalazioa areagotzeko aukerei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloen egungo funtzionamenduari eta foruzaingoaren polizia-etxeetan bidezaintzako kameren instalazioa areagotzeko aukerei buruzkoa". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako

mozio bat, 2008ko otsailaren 1eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloen egungo funtzionamenduari eta foruzaingoaren polizia-etxeetan bideozaintzako kameren instalazioa areagotzeko aukerei buruzkoa

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan, atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloen egun-

go funtzionamenduari eta foruzaingoaren polizia-etxeetan –bai nagusian bai lurraldekoetan– bideozaintzako kameren instalazioa areagotzeko aukerei buruzkoa

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bideo-zaintzako gailuak jar ditzan, behin egoera aztertuta eta botere judizialarekin lankidetzan, atxilotuak lekuz aldatu, erregistratu eta zaintzeko barne eremuetan, egiazkotasuna bermatzeko sistemekin, eta betiere atxilotuen intimitate-eskubidea nahiz Datu pertsonalen babesari buruzko Lege Organikoaren aplikazioa bermatzuz.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira azterlan bat egin dezaten, unibertsitate mailako hezkuntza-ziklo berrietan zenbait titulazio ezartzearen egokitasunari buruz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira azterlan bat egin dezaten, unibertsitate mailako hezkuntza-ziklo berrietan zenbait titulazio ezartzearen egokitasunari buruz”. Horren jatorria dira Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozioak, 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira azterlan bat egin dezaten, unibertsitate mailako hezkuntza-ziklo berrietan zenbait titulazio ezartzearen egokitasunari buruz

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premia-tzen ditu abian jarri beharreko neurriak abian jar ditzaten, Nafarroako gizarte-, ekonomia- eta enpresa-sektoreen eta sektore profesionalen parte-hartzearekin, unibertsitate mailako hezkuntza-ziklo berrietan zenbait titulazio ezartzearen egokitasuna baloratzeko, aztertzeko eta horretaz informatzeko, gure gizartearen egungo eta etorkizuneko beharrezanekin bat. Arreta berezia jarri beharko zaie osasun zientzietako titulazioei (medikuntza barne), hezkuntza arlokoiei nahiz menpekotasuna duten pertsonentzako laguntza-prozesuetatik heldu direnei, bai graduako zikloetan bai ikerketara berariaz zuzendutako zikloetan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan Baluarte Nafarroako Biltzarren Jauregia eta Auditorioko sarrera nagusiko errotulazioa euskaraz ere jartzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan Baluarte Nafarroako Biltzarren Jauregia eta Auditorioko sarrera nagusiko errotulazioa euskaraz ere jartzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan Baluarte Nafarroako Biltzarren Jauregia eta Auditorioko sarrera nagusiko errotulazioa euskaraz ere jartzeko

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen egin ditzan egin beharreko zuzemenak, Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko sarrera nagusian orain gaztelaniaz bakarrik dagoenaren modu eta tamaina bereko euskarazko errotulazioa ere jartze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Autonomoaren Foru Kontseilua sor dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Autonomoaren Foru Kontseilua sor dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Autonomoaren Foru Kontseilua sor dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. 2008. urtean Lan Autonomoaren Foru Kontseilua sortu.

2. 2008. urtean estatuarekin hitzarmen bat ezarri, menpekotasun ekonomikoa duten langile autonomoek sinatzen dituzten kontratuen erregistroa egiteko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den araudia gara dezan Nafarroako hezkuntza bereziaren arloan.*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den araudia gara dezan Nafarroako hezkuntza bereziaren arloan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den araudia gara dezan Nafarroako hezkuntza bereziaren arloan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoa den araudia gara dezan Nafarroako hezkuntza bereziaren arloan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da "Gela osasungarriak, nerabe trebeak" izeneko hezkuntza-materiala argitara dezan eta 2008-2009 ikasturterako irakasleen esku jar dezan.*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da "Gela osasungarriak, nerabe trebeak" izeneko hezkuntza-materiala argitara dezan eta 2008-2009 ikasturterako irakasleen esku jar dezan". Horren jatorria dira Nafarroa Bai eta Sozialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek aurkeztutako mozioak, 2008ko martxoaren 28ko 29. eta 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialetan argitaratuak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da "Gela osasungarriak, nerabe trebeak" izeneko hezkuntza-materiala argitara dezan eta 2008-2009 ikasturterako irakasleen esku jar dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Osasun Departamentuak "Gela osasungarriak, nerabe trebeak" izeneko hezkuntza-materiala argitara dezan eta material hori argitaratzetik heldu den gastua bere gain har dezan.

2. Hezkuntza Departamentuak 2008-2009 ikasturterako irakasleen esku jar dezan material hori, zein euskarritan dagoen, horrexetan, euskarri informatikoa barne.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait gai kontuan har daitezen Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenean.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait gai kontuan har daitezen Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenean". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko martxoaren 28ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait gai kontuan har daitezen Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenean

1. Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapena ondokoetan xedatuari jarraikiz egingen da, ikastetxeen autonomia pedagogikoari dagokionez: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa; Lehen hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezarri zituen abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretua; Derrigorrezko bigarren hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezarri zituen abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretua, Lehen hezkuntzako curriculuma ezartzen duen 24/2007 Foru Dekretua eta Derrigorrezko bigarren hezkuntzako curriculuma ezartzen duen 25/2007 Foru Dekretua.

2. Erregelamendu bidezko garapenak zenbait formula jasoko ditu, Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legean adierazitako materialak, aukeran, gure erkidegoko liburu-saltzaileei eros dakizkien, Irakurketari, liburuari eta liburutegiari buruzko ekainaren 22ko 10/2007 Legean xedatuarekin bat.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketak has ditzan Aragoiko Gobernuarekin eta Sustapen Ministerioarekin, hitzarmen bat egite aldera, A-68 autobidea doakoa izan dadin N-232 errepidearen Aragoiko zatiaren bikoizketa-lanak amaitu bitartean.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketak has ditzan Aragoiko Gobernuarekin eta Sustapen Ministerioarekin, hitzarmen bat egite aldera, A-68 autobidea doakoa izan dadin N-232 errepidearen Aragoiko zatiaren bikoizketa-lanak amaitu bitartean".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketak has ditzan Aragoiko Gobernuarekin eta Sustapen Ministerioarekin, hitzarmen bat egite aldera, A-68 autobidea doakoa izan dadin N-232 errepidearen Aragoiko zatiaren bikoizketa-lanak amaitu bitartean

1. Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketak has ditzan Aragoiko Gobernuarekin eta Sustapen Ministerioarekin, hitzarmen bat egite aldera, A-68 autobidea doakoa izan dadin, Tuteran eta Zaragoza bitarteko bi norabideetan, N-232 errepidearen Aragoiko zatiaren bikoizketa-lanak amaitu bitartean.

2. Erabaki hau ondokoei jakinaraztea:

- Espainiako Gobernuko Sustapen Ministerioari.
- Aragoiko Gobernuko lehendakariari.
- Aragoiko Gorteetako talde politikoetako ele-dunei.
- N-232 errepidearen bikoizketaren aldeko plataformako batzorde iraunkorreko ele-dun eta Malléngo alkate Antonio Asini.

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da hitzarmenak negoziata eta sinatzen Espainian legezko egoiliar nazionalak dituzten herrialdeekin, udal hauteskundeetan botoa eman eta hautatuak izateko aukera izan dezaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Espainiako Gobernuak premiatzen da hitzarmenak negoziata eta sinatzen Espainian legezko egoiliar nazionalak dituzten herrialdeekin, udal hauteskundeetan botoa eman eta hautatuak izateko aukera izan dezaten". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da hitzarmenak negoziata eta sinatzen Espainian legezko egoiliar nazionalak dituzten herrialdeekin, udal hauteskundeetan botoa eman eta hautatuak izateko aukera izan dezaten

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du hitzarmenak negoziata eta sinatzen Espainian legezko egoiliar nazional gehien dituzten herrialdeekin, udal hauteskundeetan botoa eman eta hautatuak izateko aukera izan dezaten, Espainiako Konstituzioaren 13.2 artikularekin bat.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da plan bat presta dezan Nafarroan dauden ikur frankistak 2008an kentzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da plan bat presta dezan Nafarroan dauden ikur frankistak 2008an kentzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da plan bat presta dezan Nafarroan dauden ikur frankistak 2008an kentzeko

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du plan bat presta dezan 2008an Nafarroan dauden ikur frankistak kentzeko.

2. Halaber, Nafarroako Parlamentuak erakunde publiko nahiz pribatuei eskatzen die ikur frankistak kentzen dituzten.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroan hizkuntzak ikasteko programa esperimentalean Beriain, Burlata, Noain eta Cintrúenigon parte hartuko duten irakasleei eskatuko zaien hizkuntza gaitasunari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan hizkuntzak ikasteko programa esperimentalean Beriain, Burlata, Noain eta Cintrúenigon parte hartuko duten irakasleei eskatuko zaien hizkuntza gaitasunari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, PFEZaren aitortpena egiteko inprimakietan ezarritako “beste helburu sozial batzuk” eta “Eliza Katolikoa” laukien gaineko zenbait auziri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du PFEZaren aitortpena egiteko inprimakietan ezarritako “beste helburu sozial batzuk” eta “Eliza Katolikoa” laukien gaineko zenbait auziri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du PFEZaren aitortpena egiteko inprimakietan ezarritako “beste helburu sozial batzuk” eta “eliza katolikoa” laukien

gaineko zenbait auziri buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Administrazio honek ondoko irizpide hau aplikatzen du zergadunei bidalitako aitortpen-proposamenetan zerga esleipena egiteko: aurreko ekitaldiko aitortpenean egindako aukera bera ego-tzi.

Zergadunak, zerga esleipen horrekin ados ez badago, hori alda dezake, beste aitortpen berri bat egin beharrik gabe, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kanpainen zergadunaren eskura jarritako ondoko zerbitzu hauen bidez: Internet, mezua telefono mugikorraren bitartez, telefono arreta eta aurrez aurreko arreta.

2. Ondoko eranskinean hiru taula daude, non 2006ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenei buruzko informazioa jasotzen den. Hala ageri da gaur egun gure erregistroetan:

– Administrazio honek 2006an bidalitako PFEZren aitorpen-proposamenak (onetsiak eta zuzenduak)

Aurkezten da: proposatutako aitorpenen kopuru bateratua eta proposamen horiei dagozkien aitorpen-egileen kopuru bateratua.

– 2006ko PFEaren aitorpenen zerga esleipena, aurreikusitako lau aukeretan sailkatua (zurian, eliza, beste helburu batzuk, biak)

Aurkezten da: aitorpen-egileen kopuru bateratua eta aitorpen-egile horiei dagozkien kuota osoaren kopuru bateratua, eurotan.

– 2006ko PFEZaren aitorpenetan bidalitako proposamenen zerga esleipena, aurreikusitako lau aukeretan sailkatua (zurian, eliza, beste helburu batzuk, biak)

Aurkezten da: aitorpen-egileei kopuru bateratua eta aitorpen-egile horiei dagozkien kuota osoaren kopuru bateratua, eurotan.

3. Azkenik, jakinarazten da 356 aldaketa egin zirela zerga esleipenetan, zergadunek hala eskatu zutelako, eta horretarako ez zuten beste aitorpen bat aurkezteko beharrik izan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-07/PES-00145 espedientean web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, NA-2601 errepidea hobetzeko Nafarroako Gobernuak daukan aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-2601 errepidea hobetzeko Nafarroako Gobernuak daukan aurreikuspenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-2601 errepidea hobetzeko lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera

2002-2009 urteetarako Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendariaren barruan, Nafarroako Gobernuak ez du aurreikusi NA-2601 errepidea hobetzea, N-121-B errepidean hasi eta NA-2600 errepidean amaitzen dena.

Errepide horren egoera txarra kontuan izanik, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

– Errepide horretan zer hobekuntza egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

Erantzuna

NA-2601 errepidea toki-sarekoa da eta N-121-B eta NA-2600 errepideak lotzen ditu. Errepide horren ezaugarriak tokiko errepide batenak dira, jasaten duen trafikoarentzat egokiak.

2002-2009 urteetarako bigarren errepide plan zuzendarian ez da aurreikusten errepide hori hobetzeko lanik.

Errepidearen zoruaren zainketa eta sendotzeari dagozkionez, kontuan izan behar da Baztango Udala arduratu dela Arizkungo zeharbideko hornidura eta saneamendu sareak hobetzeko proiektua egiteaz.

Behin Baztango Udalak proiektu hori esleituta, eta behin lanak burututa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak errepide hori hobetzeko lanak eginen ditu, 0+000 k.p.-tik 2+127k.p.-ra.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 24an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, erregaia deskargatzeko maniobretan izaten diren istripuetarako dagoen jardute-protokoloari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du erregaia deskargatzeko maniobretan izaten diren istripuetarako dagoen jardute-protokoloari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Altsasuko errekan isuritako gasolioari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Zein jardute-protokolo egoten da horrelakotan?

Normalean, Nafarroako Gobernuak telefono dei baten bitartez izaten du mota honetako gertakari baten berri. Horretarako, inplikaturako instalazioaren arduradunak hots egiten dio SOS Nafarroari.

Une horretatik aurrera, abian jartzen da Nafarroako Gobernuo Babes Zibileko Zuzendaritzak ezarritako jardute-protokoloa, eta jakinaren gainean jartzen dira ondoko zerbitzu berezi hauek: Nafarroako Suhiltzaileak, Foruzaingoa, ingurumen-larrialdiak eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Zainketa Zerbitzua. Horiek kasuan kasuko neurriak hartuko dituzte ingurumenaren gaineko eragina minimizatzeko. Bidezkotzat jotzen bada, aktibatu egiten da salgai arriskutsuak garraiatzeko larrialdietarako plan berezia, dagokion mailan.

2. Zer-nolako irizpen egin du Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, istripuaren eragin ekologikoaari buruz?

2007ko azaroaren 19an, goizeko 10:15ean, 10.000 litro inguruko gasolio isurketa egon zen. Zerbitzugunean isuriei eusteko dagoen sistemak 5.000 litro inguru bildu zituen, eta gainerakoa Errekalde erreka isuri zen. Erreka horretan ez dago arrainik emari txikikoa delako.

10:30 aldera, Altsasuko parkeko suhiltzaileak heldu ziren eremu horretara eta errekan bi dike jarri zituzten isuritakoari eusteko. Isurketak erreka-aren 150 metrori eragin zien, gutxi gorabehera.

Aldi berean, enpresak abisua eman zien garbiketara industrialeko bi enpresari. Horien laguntzaz, kutsatutako ura ateratzen hasi ziren, isurketa gertatu zenetik ordubete igaro baino lehen, eta prebentziorako zazpi hesi (oleoifiloak) ezarri ziren gasolioa xurgatzeko (ur-korronteak isurketa ibaian behera inolaz ere eramanen ez zuela bermatzeko). Horiek mantendu egin ziren harik eta hidrokarburu arrastorik ez zegoela ziurtatu zen arte.

Kutsatutako lurra ateratzeko lanak azaroaren 27an hasi ziren. Hori prozedura egoki baten bitartez egin zen, bertako landareei ahalik eta kalte txikiena egiteko. Lan hori ikuskatu zuten Nafarroako Gobernuo Landa Garapeneko eta Ingurumeneko langileek.

Hesi oleoifiloak mantendu egin ziren harik eta hidrokarburu arrastorik ez zegoela ziurtatu zen arte.

Gertakariari buruz eginiko irizpena da eragin txikia izan zuela ingurumenaren gainean. Hona arrazoiak: emari txikikoa zen kutsatutako erreka, azkar egin ziren isuriari eusteko ekintzak, azkar ateratzen isuritako hidrokarburua eta leheneratzeko neurri egokiak hartu ziren.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 3an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, galtzadan gai labaingarriak izatearen ondorioz gertaturiko zirkulazio istripuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du galtzadan gai labaingarriak izatearen ondorioz gertaturiko zirkulazio istripuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 26ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du galtzadan olio, koipea edo bestelako gai labaingarriak isurita egotearen ondorioz gertatutako istripuei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera

Azkenaldi honetan zirkulazio istripu ugari gertatzen ari dira, galtzadan olio, koipea edo bestelako gai labaingarriak isurita egotearen ondorioz; istripu horietako batzuek ondorio larriak izan dituzte, eta zailtasun handiak eragin dituzte kasu guztietan.

Azaroaren 29an, Lekunberrin, A-15 autobia 126. kilometro puntuan, 20:00etan, hiru istripu gertatu ziren elkarren segidan, errepidean zegoen gairen bat zela eta.

Pentsatzekoa da Nafarroako Gobernuak baduela istripu horien berri; hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Ba al du Nafarroako Gobernuak ezer berezirik egiteko asmorik horrelako gertaerak kontrolatzeko?

Erantzuna

Galderan aipatutako istripuen berri ez daukagu. Inork ere ez zuen deitu Errepide Sarearen Zainketa kontrolatzeko Zentrorra: ez eremu horretako zaindariak, ez eremu horretatik ibili ohi diren Zainketa Zerbitzuko langileak, ez eta errepideetako laguntzaile teknikoak –unitateburuak–, zainketarako enpresako langileak edo Zentroko buruak;

horietariko inork ere ez zuen inolako arazorik hauteman.

Galdetu egin diegu SOS Nafarroari, Guardia Zibilari eta Foruzaingoari, bainak haiek ere ez dute aipatutako istripuen berririk.

Edonola ere, adierazi behar da Zainketa Zerbitzuak ezarrita duela errepideak zaintzeko protokolo bat errepide nagusietan. Protokolo horretan ibilbide finko batzuk daude, beraz, kontuan izanik A-15 autobia sare nagusiko errepidea dela, errepide hori egunero ibiltzen da, eta bertan izandako edozein gertakariren berri ematen da.

Administrazioak zer irizpideren arabera erabakitzen du sortzen diren kalte-galerak ordaintzea?

Kalte-galerak ordaintzeko irizpidea honakoa da: kasu zehatzean, aldi berean gertatu beharko dira administrazioari ondare-erantzukizuna eskatzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak –behin eta berriz eman den eta ezaguna den doktrinan eta jurisprudentzian jasoak–. Hona hemen baldintza horiek:

1. Kaltea edo galera benetan gertatu dela egiaztatu behar da, eta diru aldetik zenbakarria izan behar du eta pertsona edo pertsona talde bati mugatua.

2. Eskatzaileak jasandako kaltea edo lesioa zerbitzu publikoen jarduera on edo txarraren ondorio izatea, eta egindako ekintzaren eta sortutako kaltearen artean kausa-harremana egotea, tartean beste eragilerik egon gabe.

3. Kaltea eragin duena ezinbesteko kasua ez izatea.

4. Erreklamatzeko eskubidea preskribatu gabe egotea.

Beraz, kausa-harremana badago errepideaz arduratzen den administrazioaren eta kaltea jasan duen administratuaren artean, eta tartean ezinbesteko kasurik ez badago edo hirugarrenen edo eskatzailearen jokabiderik, eta betiere kalteak eta galerak behar bezala frogatzen badira eta horretarako legez ezarritako epean eskatzen badira, administrazioak horien ordainketa egingen du.

Azken hiru urteotan antzeko gertakarien ondorioz aurkeztutako erreklamazioetan, zenbat izan dira herritarren alde ebatzitakoak?

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eskumeneko prozedurei dagokienez, azken hiru urteotan herritarren alde ebatzitakoak ondokoak izan dira:

	2005. urtea	2006. urtea	2007. urtea
Baietsiak	11	16	18
Zati batez baietsiak	10	17	17

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 7an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Camino de Santiago ikastetxe publikoko modulu aurrefabrikatua kentzeko epeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Camino de Santiago ikastetxe publikoko modulu aurrefabrikatua kentzeko epeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 26ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Aurreikusita dago otsailean kentzea modulu aurrefabrikatu hori Santiagoko Bidea ikastetxe publikotik.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 17an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartearentzako dirulaguntzei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Iratxe Kontsumitzaileen Elkartearentzako dirulaguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Irache kontsumitzaileen elkarteari emaniko dirulaguntzei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

a) Irache kontsumitzaileen elkarteak ondoko dirulaguntza hauek jaso ditu 2004tik aurrera –horiek jasota daude dirulaguntzak emateko ebazpenetan–:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Jarduketa berariazkoak (argitalpenak, jardunaldiak, ikerketak, hedabideak, etab.):	
sortutako defizitaren %100 eta gehienez	3.252
Funtzionamendu gastuak: gastuen %80 eta gehienez	7.810
Langile berekien gastuak: gastuen %80 eta gehienez	78.139
Zuzenbidean lizentziadunek emandako laguntza juridikoa: gastuen %80 eta gehienez	5.674
Kontsumitzaileen izenean erakundeetan, foroetan, eta abarretan parte hartzearen gastuak: gastuen %80 eta gehienez	486
	GUZTIRA
	95.361

2005. urtea

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Jarduketa berariazkoak (argitalpenak, jardunaldiak, ikerketak, hedabideak, etab.):	
sortutako defizitaren %100 eta gehienez	2.805
Funtzionamendu gastuak: gastuen %80 eta gehienez	8.993
Langile berekien gastuak: gastuen %80 eta gehienez	81.881
Zuzenbidean lizentziadunek emandako laguntza juridikoa: gastuen %80 eta gehienez	3.913
Kontsumitzaileen izenean erakundeetan, foroetan, eta abarretan parte hartzearen gastuak: gastuen %80 eta gehienez	481
	GUZTIRA
	98.073

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Jarduketa berariazkoak (argitalpenak, jardunaldiak, ikerketak, hedabideak, etab.):	
sortutako defizitaren %100 eta gehienez	3.141
Funtzionamendu gastuak: gastuen %80 eta gehienez	12.574
Langile berekien gastuak: gastuen %80 eta gehienez	81.716
Zuzenbidean lizentziadunek emandako laguntza juridikoa: gastuen %80 eta gehienez	3.769
Kontsumitzaileen izenean erakundeetan, foroetan, eta abarretan parte hartzearen gastuak: gastuen %80 eta gehienez	122
	GUZTIRA
	101.322

2007. urtea

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Jarduketa berariazkoak (argitalpenak, jardunaldiak, ikerketak, hedabideak, etab.):	
sortutako defizitaren %100 eta gehienez	2.688
Funtzionamendu gastuak: gastuen %80 eta gehienez	16.160
Langile berekien gastuak: gastuen %80 eta gehienez	86.188
Zuzenbidean lizentziadunek emandako laguntza juridikoa: gastuen %80 eta gehienez	3.230
Kontsumitzaileen izenean erakundeetan, foroetan, eta abarretan parte hartzearen gastuak: gastuen %80 eta gehienez	119
	GUZTIRA:
	108.385

b) Bestalde, kontsumitzaileen elkarte horrek kudeatzen du kontsumitzailea informatzeko udal bulegoen jardura. Horietako bulego batzuk Nafarroako Gobernuak diruz lagundu ditu, jarraian zehazten den moduan:

Urtea	Zenbatekoa	Irachek kudeatutako bulego kopurua
2007	44.866	49
2006	42.392	40
2005	38.079	38
2004	37.174	33

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 23an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako
kontseilaria: María Isabel García Malo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kutzako Kontseilu Nagusiko kide izateko proposatu beharreko pertsonak hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko apirilaren 17an egindako bileran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kutzako Kontseilu Nagusiko kide izateko Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko pertsonak hautatzea. Hauek dira:

- Roberto Jiménez Alli jauna.
- Eugenio Antonio Simón Acosta jauna.

- Carlos García Adanero jauna.
- José Andrés Burguete Torres jauna.
- José Miguel Nuin Moreno jauna.

Biltzarreko Erregelamenduko 113.1. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean administrari lanerako prestatu eta trebatzeko hautapen probak gainditu dituzten izangaien zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Epaimahai kalifikatzaileak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean administrari lanerako prestatu eta trebatzeko hautapen probak gainditu dituzten izangaien zerrenda igorri du –probak legelari nagusiak 2008ko martxoaren 12an emandako ebazpenaren bidez deitu ziren–. Deialdiko 6. oinarrian xedatuarekin bat, ondokoa ERABAKI DA:

1. Probak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratzea, lortu duten emaitzaren arabera ordenatua. Horra:

Enecoiz Segura, Floren	36,00
Martínez Orduña, María Jesús	32,60
Arizcuren Rey, María Ángeles	28,00
Ventura Arbilla, Ana Isabel	27,00

2. Erabaki hau Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Zerbitzu Orokorretako buruari igortzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	